

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

ARABAKO FORU ALDUNDIA

1996

IRAGARKIA, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Pertsona Ezinduen Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (kodea: 81002) izendapen aske bidez betetzeko deialdiari buruzkoa.

2012ko apirilaren 11ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (41. zk.), Administrazio Kontseiluaren lehendakariaren ebazpen bat argitaratu zen, eta, ebazpen haren bidez, honako bi gauza hauek onartu ziren: batetik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoko Pertsona Ezinduen Arloko zuzendariorde teknikoaren lanpostua (kodea: 81002) izendapen aske bidez betetzeko deialdia, eta, bestetik, deialdi horren oinarriak biltzen dituen eranskina.

Aipatutako eranskinak dioenez, hirugarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten interesdunek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakari andreari zuzendu beharko dizkiote eskabideak, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Erregistro Orokorrean aurkeztu (Alaba Jeneralaren kalea 10, 5, 3. departamentua, 01005, Vitoria-Gasteiz). Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako edozein bide erabili ahal izango da eskabideak aurkezteko; horretarako epea hamabost egun baliodunekoa izango da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 13a.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluaren lehendakaria,
MARTA ALAÑA ALONSO.